

Ipuitxoen ume-neurria

Tierra Vasca, 132. zk., 1967-06: 8.

"Sorgiñaren Urrea"tik artua.

Umeak entzuteko idazten diran kontuak oso errexak izan bear dute. Batetik, itz errexak, eta bestetik, aixa ulertzeko gertaerak erabilliaz. Eta gero, frase motxak egiñaz. Onena: asmo edo idea bakoitzerako frase bat. Eta asmo ta itz zailtxoenak bi edo iru aldiz esan.

Umeak irakurtzeko idazten diran kontuak, berri... pixka bat jaso liteke; umeak irakurtzen duana ulertzeko denbora artuko dute. Bañan emen are arreta berdiñak euki bearrean gera. Umearen lenengo euskera lanetan ez degu nekatu ta azpeltu bear.

Batez ere, kontu oiekin ez degu literaturarik egin bear. Ez ta periodismorik ere. Ez ta ensaiorik ere. Umeen kontuak, kontuak dira, ta umeentzat.

Umeak berak irakurri bear dutenean, begi-bideak ere erreztu bear zaizka. Letra aundia, ta orriak geiegi bete gabe bear dituzte; al ba da marrazki ta argazkiekin apainduta. Oraindik umearen naimen edo borondate bideak ez dira egin, ez du disziplinarik ikasi ta bide oiek al ditugun neurrian erraztu bear dizkiegu.

Berez, euskerak ba dauzka bere zailtasunak.

Euskera aoz-ao bakarrik gorde dan izkuntza izan da. Ba dakigu izkuntz guziak bi eretako bideak izaten dituztela gutxienez: bat etxeko ta kaleko izkuntza, ta bestea, berriz ikastolakoa ta literaturakoa. Izkuntz geienetan diperentziak ez dira aundiak izaten, bi erak alkarrekin ikasten eta erabiltzen dituzte ta Españeraz erriak "yo he estau aquí" esango dizu, eta idazten ikasi ba du: "Yo he estado aquí" idatziko dizu; ta orrela, millaka itz. Eta guk? Ez ba dugu irakurtzen, ez ba degu idazten, aoz-ao erabiltzen degun euskera bakarrik ikasi ba degu, orretan bakarrik geratzen gera. Ta: "laun askokin jun nitzan" esaten oituak ba gaude, "lagun askorekin joan nintzan" irakurtzea zail egiten zaigu. Nola gure izkuntzaren akatz aundi-aundi au konpondu? Irakurriz eta idatziz.

Umeentzat lan au beriala asi bearrean gera. Itzak bear bezela idatziak ikusi bear dituzte. Orregaitik, au bera ba da naikoa, bai, eta itzak errezak eman bear zaizka, ta asmo bideak ere garbiak eta beren adiñeko neurrikoak.